



SOINUENEA ETA EUSKARA IRITSI DIRA MIMO PROIEKTURA

Musical Instrument Museums Online ekimena European sortu zen sei herrialdetako hamaika erakundek Europar Batzordearen laguntzarekin proiektua 2009an hasi zutenean.

MIMO 2009 eta 2011 urteen artean abiatu zen proiektu bat da. Europar Batzordeak lagundutako proiektu horretan 6 herrialdetako 11 erakunde aritu ziren elkarlanean, soinu-tresnen bildumak zituzten erakundeak guztiak. Erresuma Batuko *The University of Edinburgh* eta *Horniman Museum*, Alemaniako *Germanisches Nationalmuseum*, *Ethnologisches Museum* eta *Museum für Musikinstrumente*, Frantziako *Cité de la Musique*, Belgikako *Muziekinstrumentenmuseum (mim)* eta *Koninklijk Museum voor Midden-Afrika*, Suediako *Scenkonstmuseet* eta Italiako *Associazione "Amici del Museo degli Strumenti Musicali"* eta *Università degli Studi di Firenze* aritu ziren elkarrekin guztien bildumak erakutsiko zituen web orri bat sortzen. Lan haren ondorioa sarean dago www.mimo-international.com helbidean.



Hala ere, geroztik datu-base hura handitzen joan dela zehaztu beharra dago. Izan ere, museo gehiago elkartu dira proiektu horretara bilduma han-

diak dituzten erakundeen ondoan bilduma txikiak gerturatuz. Era horretan, soinu-tresnen inguruan jakin-mina duenak leku bakarrean bila ditzake guztiak.

Bilduma gehienak Europakoak badira ere, Afrikako museo batzuk gehitu dira proiektura eta mundu osoko bildumei buruzko informazioa elkartzeko lanean ari da MIMO.

Gaur egun, sarean soinu-tresnei buruzko informazioa duen sarbide libreko datu-base handiena da gutxi gora behera 60.000 piezaren datuekin. Soinu-tresna bakoitzaren izenaz gain, haren sailkapen bat, argazki bat edo gehiago eta datu gehiago topa daitezke. Fitxa guztietan topatzen ez badira ere, batzuetan soinu-tresnaren hotsa azaltzen duten audio edo bideo grabazioak ere badaude.

Duela bi urte Soinueneak MIMO bezalako leku batean egon behar zuela erabaki genuen. Geroztik hemen kudeatzen den soinu-tresnen bildumari buruzko informazioa bertan partekatzeko lanean aritu gara Lotura-ko eta *Cité de la Musique*-ko teknikariek, eta apiriletik bertan ikus daitezke Soinueneako soinu-tresnak. Orain gure soinu-tresnen bilduma MIMO proiektuan dauden besteekin batera iker daitete; Barcelonako *Museu de la Música*, Pariseko *Cité de la Musique* edota neurri ezberdinetako beste makina bat museotako soinu-tresnekin batera.

MIMO bere sorreratik hizkuntza ezberdinetan aritzeko prestatu da. Irudi eta hotsak ia edonork uler baditzake ere, informazio ugari testuetan dago. Proiektua abiatu zenean iada, sei herrialde ezberdinetako erakunde ezberdinak aritu ziren elkarlanean. Elkarren arteko komunikazioa eta dokumentuen sorrera ingelesez egin bazen ere, bakoitzaren herrialdeko biz-



tanleen hizkuntza nagusian lan egitea ahalbidetuko zuen ingurunea sortzen saiatu ziren. Batetik, web orria bere testuak hizkuntza ezberdinetan erakusteko prestatuta dago, eta bestetik soinu-tresnen thesaurus ere hizkuntza ezberdinetara itzulita dago; soinu-tresnen izenak eta haien sailkapena dago thesaurusean sartua. Hala, MIMO bere sorreratik ingelesez, alemanez, frantsez, nederlandez, suedieraz eta italiaraz egon da. Proiektura sartzen joan diren museoak hizkuntza gehiago sartzen joan dira; beraien hizkuntza lehenik sartua ez zegoenean eta ahal izan dutenean.

Hasierako hizkuntzetara gehitzen lehena katalana izan zen, *Museu de la Música*ren eskutik. Ondoren etorri ziren txinera, poloniera eta gaztelania.

Orain euskara ere sartu da MIMO proiektuan. Elhuyar Fundazioaren laguntzarekin thesaurus itzuli da eta web orria kudeatzen dutenen esku dago. Testu hau idazten ari garen unean oraindik ez dute erabiltzeko moduan thesaurus, baina berandu gabe izango da. Dena den, euskara dagoeneko ikusgai dago Europa birtualaren zati bat den MIMO proiektuan eta euskal kultura munduan ikusgai dago.

HERRI MUSIKA KONTZERTUAK

UDABERRIKO KONTZERTUA

2018ko maiatzaren 5ean - 18:30 - Auzokalte elkartean - 5 euro

EZPELUR Dultzaineroak



Tomás Díaz:

dultzaina lehena.

Xabier Maritxalar:

dultzaina bigarrena.

Joseba Lasarte:

dultzaina lehena eta perkusioa.

Edurne Jauregui:

dultzaina bigarrena eta perkusioa.

Jesús Soria:

tuba.

Shanti Díaz:

atabala.

GAITARIAK

Benetan, gaita soinua ezinbestekoa egin da gure herrietako jaietan. Egunsentiko dianak, erraldoi konpartsarekin paseoa, arratseko dantzaldia... edota zergatik ez, bazkaloeste musikatu bat gaita eta danbor eritmoak erabiliz!

Ezpelurrek aukera guzti hauek eskaintzen ditu. Zaindutako errepertorio zabal batekin, genero guztietako piezak jotzen ditugu, gurea den instrumentu maite honek dituen aukerak aprobetxatuz. Berrogei urte baino gehiagoko esperientzia du taldeak bere atzean.

**ETA GOIZEAN
(haurrentzat)**

ERRALDOIEKIN DANTZAN

Lekua: SOINUENEA

EZPELUR Dultzaineroek gidatuta dantza tailer berezia izango dugu Soinuenean.

Eguna: 2018-05-05

Ordua: 11:30

ERRALDOIEKIN nola dantzatzen den ikasiko dute haurrek eta haien gurasoek.

ERRALDOIAK

Urteak dira Nafarroako herri txikienetako jaietan hutsune bat ikusten genuela, bertan antolatutako egitaraua eta haurrentzako ekitaldiak eskasak direlako. Horregatik, eta egunetik egunera etxeko txikienetzako erakargarriagoa den tradizio bat izanik, pentsatu genuen honelako irudiak egin behar genituela. Ordu ezkerro Ezpelur Gaitarien musikaz alaituta, eta herriz-herri dantzatuak izan daitezen, herriek hala eskatzen dutenean, hara eramaten ditugu gure erraldoiak ere.

VICENTE PRADO “EL PRAVIANU”

CELESTINO ROZADA




Vicente Prado Suárez “El Pravianu”

Asturiasko Viella (Siero) herrian 1964ko maiatzean sortua da. Txikitatik azaldu zuen asturiar folklore eta herri-musikarako zaletasuna, denborak aurrera egin ahala bizibide bihurtu duena. Folkloreko alor ezberdinak garatu ditu. Hala, gaiteroa izateaz gain, gaitak egiten eta jotzen erakusten aritzen da. Gaur egun, Asturiasen gaitak egiten dituen artisau bakarretakoa da. Horretaz gain, bakarriketak ematen ere aritzen da.

Gaita ikasten 13 urte zituela hasi zen Luis de Arnizo irakaslearekin. Soinu-tresna honekin zuen trebezia berehala geratu zen agerian, hainbat lehiaketetara aurkeztuaz eta haietako gehienak irabaziaz. Geroztik nagusiki Asturiasko herrietan barrena aritzen da era ezberdinetako ekitaldietan. Asturiastik kanpora asturiar jatorriko jendearen topaguneak diren herrialde ugaritako Centros Asturianos-etan jo izan du.

Lehen diskoa 1987an argitaratu zuenetik hainbat disko grabatu ditu bakarrik. Horretaz gain, beste musikarien diskoetan ere parte hartu du gaita asturiarrarekin.



Celestino Rozada Tamés

Asturiar tonada kantatzen duen abeslari hau Porrúa (Llanes) herrian jaio zen 1972ko maiatzean.

Formazioz autodidakta da eta gazte-gazte hasi zen tonada lehiaketetan parte hartzen. 1998 urtean gazte mailan finalera iritsi zen hainbat hiritako txapelketetan.

Alemanian lanean ibili zen garaian tonada abeslari moduan aritzeari utzi zion. Handik bueltatu zenean berriro lehiaketetara itzuli zen tonadetan aditua den Javier el d'Arroes-ek bultzatuta.

Lehen garaipena 2006an Amieva-ko lehiaketan lortu zuenetik ugariak izan dira Asturiasen antolatzen diren tonada txapelketetan lortu dituen sariak.

Muséu Etnográfico del Oriente-ren bitartez argitaratu zuen lehen diskoa 2007 urtean.

2009an Celestinok “Al pie del Cuera” disko berria atera zuen. Hamalau piezaz osatutako diskoa horretan, abesti batzuetan berak bakarrik kantatzen badu ere, beste batzuetan El Pravianu-k bere gaitarekin laguntzen du.

AFARIA KONTZERTUAREN ONDOREN

Afaria kontzertuko leku berean izango da, hau da, Auzokalte elkartearen. Bertan musikariek egon, jan, kantatu, jo eta dantzatzeko aukera izango da.

Kontzertua eta afaria: 20 euro

kontzertu honen laguntzaileak:

AUZOKALTE
ERGOIENGO AUZO
ELKARTEA

TIRIKITRAUKI
MUSIKA DENDA
esku-soinuak
9 ZERO SETTE
Lasarte-Oria
Tel/Fax 943 372 617
www.tirikitrauki.com

HERRI MUSIKAREN JARDUNALDIAK

Martxoan izan ziren 17. Herri Musika Jardunaldietan emakumeek herri musikan eta herri kulturaren izandako parte-hartzea jorratu genuen. Hilaren 16an jardunaldiari hasiera eman genien Oiarzungo Udaletxeko Areto Nagusian, Gari Garaialdek egindako EMAKUMEAK MASKAPEAN argazki erakusketaren aurkezpenarekin.

Martxoaren 24ean, larunbata, egun osoko mintegia izan genuen Areto Nagusian bertan. 9:30etan Iosune Cousillasek (Oiarzungo Udaletxeko Kultura zinegotzia) eta Emilio Xabier Dueñasek (Soinueneako lantaldeko kidea) eguneko egitaraua aurkeztu zuten. Segidan, hitzaldi sorta interesgarria entzun genuen. Aingeru Berguiesek emakume panderojoleei buruzko ikerketa aurkeztu zuen: "La panderetera: una grieta en el Patriarcado / Una visión de Género desde la Iconografía, la Organología y la Sociabilidad popular (1850-1936)". Jarraian, Gurutze Lasak "Emakumearen irudikatzea XX eta XXI. mendeetako Trikitixan" izeneko hitzaldia eskaini zigen. Atsedendaldia motz baten ondoren, Oier Araolazaren txanda izan zen, "Emakumea euskal dantzan: Aurrekoa dantzatzen ez zuten poxpolinak" gaiarekin. Goizeko saioari bukaera emateko, Karine Etxeberriek "Sorkuntza eta generoa, herri kantagintzan" doktorego ikerketaren nondik norakoak azaldu zizkigun.

HERNANIKO TXALAPARTA FESTA

Gutxi falta da urtero maiatzean ospatzen dugun zitarako. Aurtengoa Hernaniko Txalaparta Festaren 32. edizioa dugu. Joxan Artze gogoan izango duen edizio hau maiatzaren 25ean eta 26an ospatuko diren ekitaldi ezberdinez beteta dator.

Maiatzaren 25ean (ostirala), iluntzeko 19:30etan, Mar Mar Dantza Konpainiak "BIRAKA" ikuskizuna eskainiko du Biteri Kultur Etxean.

Larunbatean eguerditik aurrera egitarau oparoa prestatu dute Ezkiaga (Tilos) Pasealekuan. 12:00etan hasita, nahi duenak txalaparta jotzeko aukera izango du, soinu-tresna herritarren eskura jarriko baita. Ordu berean, kalebuelta egingo dute Hernani Musika Eskolako alboka, dultzaina, trikitixa eta txistu taldeek.

14:30etan herri bazkaria egingo da. Txartelak 16 eurotan salduko dira, eta aurrez erreserbatzea komeni da. Horretarako honako helbideetara idatz daiteke:


aitorbeltran@yahoo.es edo soinuenea@soinuenea.eus

Arratsaldeko 17:00etan txalaparta jaialdi nagusiaren txanda izango da. Hurrenez hurren, honako taldeak entzuteko aukera izango dugu: Hernaniko Bertso eskolako bertsolariak, Saustako Zuaznabartarrak, Erbetegi-Etxeberriko Goikoetxeatarrak, Koldo eta Xabier Irungo txalapartariak (Gipuzkoatik), Biraka (Bizkaiatik), Txalamako taldea (Arabatik), Haundia eta Txikia (Iparraldetik) eta azkenik Hernaniko Udal Musika Eskolako Ttakun Ttan Ttakun txalaparta taldea. 23:00etan festari bukaera emango zaio Atxur tabernan Txalaparta Party Apartarekin, DJ Barruren eskutik.



Oiarzungo Gazte Izanak elkartearen bazkaldu eta gero, 15:30etan Carne Campo eta Chus Caramések ere ekarpen interesgarria egin ziguten, "Andar cos tempos / Una invitación desde Galiza a revisar el baile tradicional con perspectiva de género" aurkezpen mardularekin. Mintegiari bukaera emateko, mahai ingurua izan zen, Itziar Navarrok moderatuta. Egunean zehar aipatutako gai ezberdinen inguruan eztabaida interesgarriak piztu ziren bertaratutakoekin artean.

Igandean festa giroa nagusitu zen. 11:00etan Gari Garaialdek argazki erakusketa gidatu zuen, eta 12:00etan Alkarkide Txarangak Done Eztebe plazara hurbildutakoak dantzan jarri zituen, Dantza Plazan ekimenaren baitan. Bazkalorduan ere ez zen jai giro, kanta eta dantzarik falta izan.



32 Txalaparta Festa

Hernani 2018

MAIATZAK 25 OSTIRALA
"BITERI KULTUR ETXEAN"

19:30 "BIRAKA" Mar Mar Dantza Konpainiaren eskutik

MAIATZAK 26 LARUNBATA
"EZKIAGA PASEALEKUAN (TILOS)"

12:00 Txalaparta zabo loreak:
Hernani Musika Eskolako alboka, dultzaina, trikitixa eta txistu taldeak jotzen

14:30 Herri Bazkaria

16:00 Auzo erreserbatza komeni da. 16 euro

17:00 TXALAPARTA JAIALDI NAGUSIA

Hernaniko Bertso eskolako BERTSOLARIAK

Saustako ZUAZNABARTARRAK

Erbetegi-Etxeberriko GOIKOETXEATARRAK

Gipuzkoatik: KOLDO ETA XABIER, Iungo Txalapartariak

Bizkaiatik: "BIRAKA"

Arabatik: TXALAMAKO TALDEA

Iparraldetik: HAUNDIA ETA TXIKIA

Hernaniko Udal Musika Eskolako Ttakun Ttan Ttakun txalaparta taldea

23:00 TXALAPARTA PARTY APARTA

Atxur tabernan, DJ BARRUEN eskutik



BISITARI KOPURUA

Azken hiru hilabeteetan: bisitari kopurua: 1.135
Antolatutako taldeak: 38

Bisitari kopurua maiatzera arte: 58.564

WEB ORRIRA BISITAK

Azken hiru hilabeteetan: 16.561

Soinuenea - Herri Musikaren Txokoa

Tornola kalea, 6 - 20180 OIARTZUN

Tel / Fax 0034 943 493 578

soinuenea@soinuenea.eus

www.soinuenea.eus

